



Klis-Klas klasikoak! proiektuaren jarduerak

KLIS-KLAS KLASIKOAK! PROIEKTUAREN JARDUERAK

A) ESPLORAZIO-FASEA

1. JARDUERA: "Euskal autore zaharren txokoa"

Denborazkotasuna: 1 ordu
Espazioa: Ikasgela
Lan egiteko era: Taldeka (4 ikasle) eta talde osoa

Euskal klasikoen munduan murgildu baino lehen, garrantzitsua da ikasleek *kanon literarioa* kontzeptua zer den ezagutzea eta ulertzea. Ikasleek jakin behar dute, euskal literaturan badaudela obra batzuk funtsezkotzat jotzen direnak, mendeen poderioz izan duten garrantziagatik eta egun ere oraindik ere duten balioagatik, irakurleen gozamina bermatzen dutelako.

Lehenengo jarduera honetan, tutoreak ikasgelan euskal autore zaharren txokoa prestatuta izango du. Txokoa, euskal klasikoen liburuak eskuragai egongo dira, mahai ezberdinetan ikusgai. Irakasleak taldeak osatuko ditu eta talde bakoitzari (4 ikasle) *Euskal klasikoen kanon literarioa* fitxa¹ banatuko die eta zer egin behar duten azalduko die.



1. irudia. Literatur txoko baten eredu.

Talde ezberdinek txokoa dauden liburuak ikusteari eta aztertzeari ekingo diote. Eta fitxa abiapuntu izanda, talde bakoitzak aukeratutako liburu ezberdinen bidez, euren klasikoen kanon literarioa osatu beharko du. Bertan, lau izenburu idatzi beharko dituzte, aukeratutako liburuaren idazlea eta urtea zehaztuz. Oso garrantzitsua izango da, liburu bakoitzaren aukeraketaren zergatia idaztea ere. Aipatu beharra dago, talde bakoitzaren partaide guztiak ados egon behar direla liburuaren aukeraketarekin. Tutoreak, bitartean, talde ezberdinen txokoetatik pasatuko da eta jardueran zehar izan ditzaketen zalantzak argituko ditu.

Ondoren, talde bakoitzak beste taldeei azalduko die zein autoreren obrak osatzen duen

¹Ikus *Euskal klasikoen kanon literarioa* fitxa, 29.or.

bere kanon literarioa eta zergatik aukeratu dituzten obra horiek. Talde bakoitzak egindako kanon literariotik abiatuz, talde guztien artean kanon literario berri bat osatuko dute. Tutoreak garrantzitsuak iruditzen zaizkion obrak ez daudela ikusten badu, beste batzuk esleitzeko gomendatu die, beti ere denon artean kanonean zergatik egon behar diren aztertuz. Amaitzeko, irakasleak taldeek osatutako kanon literarioa kartulina batean idatziko ditu, ikasgelako horman itsasiz, ikasleek beharrezkoa dutenean ikusteko aukera izateko.

Argitu beharra dago, jarduera honetan sortutako kanon literarioa, ez dela zerrenda luzeegia izango, gure helburua ez baita literatura zaharraren kanon literario konplexu bat sortzea, baizik eta ikasleei kanon kontzeptua hurbiltzea eta klasikoen lehenengo gerturatzea eskaintzea, gaiarekiko interesa eta motibazioa sustatuz.

EUSKAL KLASIKOEN KANON LITERARIOA

1. Liburuaren izenburua:

Idazlea:Urtea:

Aukeraketaren zergatia:

.....

2. Liburuaren izenburua:

Idazlea:Urtea:

Aukeraketaren zergatia:

.....

3. Liburuaren izenburua:

Idazlea:Urtea:

Aukeraketaren zergatia:

.....

4. Liburuaren izenburua:

Idazlea:Urtea:

Aukeraketaren zergatia:

.....

2. JARDUERA: "Klasikoak gure eskura!"

Denborazkotasuna: 1 ordu
Espazioa: Ikasgela
Lan egiteko era: Taldeka (4 ikasle)

Lehenengo jardueran sortutako kanon literarioa abiapuntu izanda, bigarren jarduera honetan talde bakoitzak kanon literarioko lan bat aukeratu beharko du. Horretarako, irakasleak kanon literarioan hautatutako liburuak ikasgelara eramango ditu eta argi eta garbi azaldu beharko die aukeraketaren garrantzia, talde bakoitzak aukeratzen duen obra proiektu osoan zehar erabiliko duena izango baita.

Taldeka, kanon literarioko liburu ezberdinak sakontasunez aztertuko dituzte (nolakoa den portada, zein izan daitekeen gaia, etab.) eta beste taldekideen ideiak eta argumentuak entzunez eta aintzat hartuz, talde bakoitzak interesgarrien iruditu zaion liburua aukeratu beharko du eta *Gure obraren txartela* fitxa² bete beharko du, beharrezkoak diren datuekin eta liburuarekin zerikusirik duen marrazki bat eginez. Tutoreak talde ezberdinetatik pasatuko da, ikasleen argumentazio-maila zein den entzunez eta txartela ondo betetzen dutela ziurtatuz, beharrezkoa bada gomendio zehatzak emanaz.

Amaitzeko, talde bakoitza arbelera irtengo da eta beste taldeei bere liburua eta bete duen txartela aurkeztuko die, aukeraketaren arrazoia zein izan den esanez eta azalduz zein izan daitekeen obraren gaia. Ezin ahantz daiteke, arrazoi horiek ez direla finkoak edo zuzenak izan behar, ikasleen hipotesiak baino ez dira, oraindik ere esplorazio-fasean baikaude. Hortaz, aukeratutako liburuaren gaia ez bada guztiz zuzena, ez du garrantzirik izango, proiektua aurrera eramaten den heinean alderdi horiek sakondu eta finkatuko baitira.

² Ikus *Gure obraren txartela* fitxa, 31.or.

GURE OBRAREN TXARTELA

IZENBURUA:.....



Autorea:

Argitaratutako urtea:

Gaia:

.....

.....

B) IDEIA BERRIEN SORRERA FASEA

3. JARDUERA: "Obra zaharren aipuak twitteatzen"

Denborazkotasuna: 1 ordu
Espazioa: Ikasgela
Lan egiteko era: Taldeka (4 ikasle) eta bakarka

Egungo gizartean ikasleriak teknologia berriak (mugikorrek, tabletak, mugikorrek) gero eta gehiago erabiltzen ditu. Ikastetxean ere IKTen erabilera sustatu beharra dago, etorkizuneko baliabideak izango baitira. Alabaina, hauek modu egokian erabili behar dira, emaitza erabileraren arabera izango delako.

Fase berri honetan, talde bakoitzak aukeratutako obra irakurtzeari ekingo dio. Irakurketa banaka izango da, nahiz eta taldean obraren inguruan hitz egiteko aukera izan. Aipatu beharra dago, ez dutela obra osoa irakurriko, baizik ere euren adinera eta interesetara gertuen dauden pasarteak. Pasarte hauek, tutoreak aukeratutakoak izango dira eta moldatuta egongo dira jadanik, hots, euskara batuan idatziak.



2. irudia. Twitter sare soziala.

Behin, lehenengo irakurketa eginda, taldekide bakoitzari interesgarrien edo deigarrien iruditu zaizkien hainbat aipu publikatu beharko dituzte, Twitter sare soziala erabiliz. Horretarako, talde bakoitzak ordenagailu mugikor txiki bat izango du. Irakasleak, jadanik talde bakoitzarentzat Twitter kontu bat irekita izango du, beraz, talde bakoitzari kontuaren izena eta pasahitza emango die eta zer egin behar duten azalduko die. Twitts guztiak biltzeko hadstag #klis-klasklasikoak izango da eta bertan idazlearen izena eta aipua idatzi beharko dute. Ikus dezagun adibide bat:

Bernat Etxepare, "Euskara da kanpora eta goazen denok dantzara" #klis-klasklasikoak

Amaitzeko, talde bakoitzak beste taldeek twitteatutako aipuak irakurri beharko dituzte eta publikatutako guztien artean, gutxienez, bat retwitteatu beharko dute, aukeraketaren

zergatik arrazoituz. Adibidez:

Euskara da kanpora eta goazen denok dantzara. Benetan polita eta alaitsua iruditu
zaigu!
#klis-klasklasikoak

4. JARDUERA: "Jakin badakit!"

Denborazkotasuna: 1 ordu eta erdi (2 saio)
Espazioa: Ikasgela
Lan egiteko era: Taldeka (4 ikasle)

Jarduera honetan, eta jadanik lehenengo irakurketa eginda, taldeka obrak eta hauen idazleak aztertzeari ekingo diote, baina oraingoan modu sakon batean. Horretarako, bi saio izango dituzte; lehenengo saioan, talde bakoitzak idazlearen datu biografiko oinarritzkoenak bilatu beharko ditu, beti ere dagokion testuinguruan kokatuz, eta bigarren saioan, obra zehaztasunez irakurri eta aztertuko du. Bi saioetan ikasleek, laguntza moduan, *Euskal idazle zaharren gida* fitxa³ eskura izango dute, behar izatekotan puntu ezberdinak kontsultatzeko.

Prozesu hau aurrera eramateko, ikasgelan talde bakoitzak ordenagailu eramangarri bana izango du, eta hiztegiak eta entziklopediak eskura izango ditu. Tutoreak gidari lana egingo du; ikasleen zalantzak argituz eta oztopoak aurkitzen badituzte bidea erakutsiz, baina informazio lortzea, hautatzea eta prozesatzea ikasleen lana izango da.

Lehenengo saioan, beraz, idazlearen datu biografiko garrantzitsuenak, beti ere autorearen testuingurua aintzat hartuz, bilatu eta hautatuko dituzte, orri batean idatziz. Saioa amaitu baino lehen, talde bakoitzak tutoreari egindakoa erakutsiko dio. Tutoreak lana begiratuko du eta egindakoaren inguruan gomendioak emango dizkie. Hobetu beharko dituzten alderdiak egongo balira, hurrengo saioan hauek hobetzeko denbora izango dute.

Bigarren saioan, aldiz, talde bakoitzak obraren pasartea irakurri eta landuko du:

³ Ikus *Euskal idazle zaharren gida* fitxa, 35. or.

ezezagunak gertatzen zaizkien hitzen esanahia edo sinonimoak bilatuko dituzte, obra zeri buruz hitz egiten duen aztertuko dute, hots, zein den gai nagusia, zer motatako testua den aztertuko dute, zein pertsonai agertzen diren begiratuko dute, besteak beste. Laburbilduz, obraren pasartea ulertzeko baliogarria zaien alderdi ezberdinak aztertu beharko dituzte. Saio honetan, tutoreak taldez talde pasatuko da (15 minutu talde bakoitzeko), eta obra aztertzerakoan sortu daitezkeen zailtasunei irtenbidea aurkitzen lagunduko die.

EUSKAL IDAZLE ZAHARREN GIDA

1. EUSKAL IDAZLE ZAHARREN BIZITZA ETA TESTUINGURUA:

1. Noiz eta non jaio zen? Noiz hil zen?
2. Zein zen bere lanbidea?
3. Garai hartako egoera zein zen?
4. Bere bizitzan gertaera garrantzitsuak egon ziren?
5. Zenbat obra idatzi zituen? Zeintzuk ziren obra horiek?
6. Noiz idatzi zituen lan horiek?
7. Zergatik da idazle hau literatura munduan garrantzitsua?
8. Besterik?

2. EUSKAL IDAZLE ZAHARREN OBREN PASARTEAK:

1. Zeintzuk dira obran agertzen diren pertsonaiak?
2. Zein testu mota da?
3. Zein da gai nagusia?
4. Zer kontatzen da obran zehar?
5. Zergatik idazleak idazten du hori?
6. Besterik?

D) BERREGITURAKETA FASEA

5. JARDUERA: "Klasikoak apaintzen!"

Denborazkotasuna: 2 ordu
Espazioa: Ikasgela
Lan egiteko era: Taldeka (4 ikasle)

Jarduera honetan, talde bakoitzak aurreko jardueretan lortutako informazioa egituratzeari eta idazteari ekingo dio. Ondoren, talde bakoitzak informazio hori hainbat euskarri ezberdinetan idatzi beharko du; hiru taldek horma-irudiak egingo dituzte eta beste hiru taldek liburuentzako "markapaginak". Informazioaz gain, irudiak eta marrazkiak atxikitzeko aukera izango dute.



3. irudia. Klasikoak apaintzeko materiala.

Horretarako irakasleak behar duten materiala utziko die; kolorezko kartulinak eta orriak, errotulkiak, margoak, artaziak, kola, besteak beste.

Hauek nahi duten bezala apainduko dituzte, baina, edozein baliabide erabilita, ondorengo egitura agertu beharko da:

1. Idazlearen bizitza eta testuingurua
2. Obraren pasarte edo aipu interesgarrienak
3. Obraren gaia eta laburpena

Irakasleak, bitartean, talde ezberdinetatik pasako da, letra zaintzen duten aztertuz, ortografia akatsik ez dagoen begiraturaz, etab. Behar izatekotan, gomendioak ere eman beharko dizkie (letraren tamaina, idazkiak betetzen duen espazioa, etab.) horma-irudi edo "markapaginak" apaintzeaz gain, garrantzitsua izango baita informazioa zuzena eta ondo egituratuta egotea.

6. JARDUERA: "Besteen iritziak garrantzitsuak dira!"

Denborazkotasuna: 1 ordu eta erdi
Espazioa: Ikastetxeko aretoa
Lan egiteko era: Taldeka (4 ikasle) eta talde osoa

Fase honetako bigarren jardueran, azkenengo jarduerarako erakusketa prestatuko dute. Horretarako, ikastetxeko aretora joango dira, eta talde bakoitzak prestatutako euskarria (horma-irudia edo "markapaginak") eramango du, entsegua egiteko.

Tutoreak talde bakoitzak hartu behar duen lekua zein den adieraziko die eta ikasleak eta gurasoak non eseriko diren azalduko die. Talde bakoitzak entsaiatzeari ekingo dio eta horretarako, bakoitzak mahai bat izango du, diseinatutako materiala kokatzeko. Horrela, taldeak banan-banan euren aurkezpenak entsaiatzen hasiko dira, eta entzule moduan beste taldeak izango dituzte. Talde hauek gomendioak eman beharko dizkie: zer hobetu dezaketen, zer den interesgarriena, etab. Aldi berean, tutoreak hobetzeko alderdiak nabarmenduko dizkie (ahotsaren tonua, esaldien egitura, etab.).

Amaitzeko, entsegu orokorra egingo dute, eta erakusketa egunerako gauza guztiak prestatu dituzte.

E) APLIKAZIO FASEA

7. JARDUERA: "Euskal autore zaharren erakusketa"

Denborazkotasuna: 1 ordu eta erdi
 Espazioa: Ikastetxeko aretoa
 Lan egiteko era: Taldeka (4 ikasle) eta talde osoa

Azkenengo fase honetan, ikasleek proiektuan zehar landutakoa eta ikasitakoa aplikatuko dute. Horretarako, ikastetxeko aretoan, euskal autore zaharrei buruzko erakusketa aurkeztuko dute, prozesu osoan zehar egindakoa erakusteko. Bertan, gonbidatu batzuk egongo dira entzule moduan, 5. mailako ikasleak eta gurasoak (borondatezkoa izango da). Ikasleek bi aste lehenago, etxera ohartxo bat eramango dute, gurasoek jakin dezaten gonbidatuta daudela euren seme-alabek prestatutako erakusketara.

Erakusketak hainbat zati izango ditu:

1. zatia: Hitzalditxoa, horma-irudia euskarri izanda (3 talde)
2. zatia: Hitzalditxoa, liburuentzako "markapaginak" euskarri izanda (3 talde)
3. zatia: Erakusketaren inguruko galderak

Hitzaldi bakoitza gehienez 10 minutukoa izango da, eta aproposa ikusten duten taldeek obraren pasartetxo bat irakurriko dute. Ez da derrigorrezkoa, beraz, nahi duen taldeak egingo du.

Hitzaldiaren egitura ondokoa izango da:


1. Idazlearen datu biografiko garrantzitsuenak, testuingurua aintzat harruz.
2. Obraren laburpena eta gaiaren inguruko zehaztapenak.
3. Obraren pasarte baten irakurmena (hautazkoa)

Erakusketari amaiera emateko, 5. mailako ikasleek nahiz gurasoek tartetxo bat izango dute galdera ezberdinak egiteko edota hausnarketaren bat gehitzeko.

8. JARDUERA: " Zein kolore naiz? "

Denborazkotasuna: 1 ordu
Espazioa: Ikasgela
Lan egiteko era: Bakarka eta talde osoa

Klis-klas klasikoak! proiektuari amaiera emateko, ikasle bakoitzak proiektuari buruzko autoebaluazioa egingo du, hots, proiektuari buruz zer iritzi duen eman beharko du, oso garrantzitsua baita ikasleek euren sentimenduak adierazten jakitea. Horretarako, ikasgelan borobil bat osatuko dute, eta erdian kolore ezberdinetako kartulinak (beltzak, zuriak, berdeak, gorriak, etab.) eta boligrafoak izango dituzte.



4. irudia. Sentimenduak adierazteko aurpegi irudien adibideak

Ikasle bakoitzak kolore bateko kartulina bat hartuko du -kolorearen hautaketa nola sentitu den arabera izango da- eta zergatik hartu duen kolore hori azaldu beharko du. Horretarako, hitz edo esaldi bat bertan idatzi beharko du edo nahi izanez gero, marrazki baten bidez adieraziko du. Kontuan hartu behar dugu, ikasle bakoitzak bere nortasuna daukala, eta askotan hitzen bidezko adierazpena kostatzen zaiela, are gehiago besteei azaldu behar dizkietenean, beraz, aurpegi bidezko marrazkiak eginez, adierazpen bidezko metodo hori lagungarria izango zaie.

Amaitzeko, ikasle bakoitzak gehien gustatu zaiona azalduko du eta hurrengo baterako zer aldatuko lukeen esango du. Gomendagarria izango da proiektuari amaiera emateko, irakasleak ikasleei proiektuaren inguruko hausnarketatxo bat egitea, ikasleek ere tutorearen feedback-a jasotzeko asmoz.